



# AURRERA EGUNA IZANGO DA ETZI, LEITZAN

Aurrera Kirol Elkarteak bere egun handia izango du etzi; goizetik gauera ekitaldi ugari izango dituzte herrian >7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2009-10-01**

VIIURTEA 1.790.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Atzo aurkeztu zuten disko berria Donostian; ezker-eskuin: Karlos Aranzedi, Imanol Ubeda, Joserra Senperena eta Joni Ubeda. iriGO TERRADILLOS

## BIDE ERTZEAN TALDEAREN HAMAR URTEAK ISLATZEN DITUEN LANA KALEAN DA

**TOLOSA** Atzo aurkeztu zuten musikari tolosarrek 'Leidor Sessions' CD-DVDa; Leidor aretoan urtarrilean eman zuten kontzertua baliatu dute zuzeneko diskoa egiteko 2

### Tarragonan lehiatuko dira asteburuan Tolosaldeko Arraun Klubekoak

**TOLOSALDEA** Orioko taldea eta Tolosako beterano eta seniorrak ariko dira 6



TAKeko seniorrek ere gogor entrenatu dute txapelketarako. HITZA

### Bihar hasiko dira Ugarten Errosarioko Amaren jaiak, ekitaldi ugarirekin

**AMEZKETA** 20:30ean ekingo diete jaiari kanpai eta suzirien doinuekin 4

### XL. Abelgorri Lehiaketa egingo dute Ferialekuan larunbat honetan

**TOLOSA** Roberto Ruiz sukaldaria egongo da sukaldatzen Zerkausion 3

### Zerrategiaren kasuan, epaiak espedientea atzera eramatea eskatu du

**ALTZO** Altzo Azpiko zerrategian azterketa berria egin beharko dute 5

### Herriari buruzko logotipo lehiaketa antolatu dute

**AMEZKETA** Azaroaren 6a bitarte aurkez ditzakete lanak parte-hartzaileek 4

**Musika** » Urtarrilean Leidorren eskaini zuten kontzertuaren grabaketa biltzen du 'Leidor Sessions' CD-DVDak.

#### INIGO TERRADILLOS

Bide Ertzean taldea benetan eza-gutu nahi duenak euren azken lana entzun eta ikustea izango du modurik egokiena, *Leidor Sessions* (Gaztelupeko hotsak) CD-DVDak euren ibilbidea erakusten baitu. Taldeak hamar urte betetzen zituela ospatzeko Leidor aretoan urtarrilean eskaini zuten kontzertua, ondoren diskora eramateko helburuarekin. Hala, hainbat hilabeteren ostean, zuzeneko diskoa grabatzeko proiektuak itxura hartu du, jendaurrera agertzeko unea iritsi zaion arte.

Atzo aurkeztu zuten tolosarrekin euren azken lana, «berezieta». Taldeak zuzeneko diskoa egin nahi zuela argi zuen, «hamar urte betetzearekin batera, une egokia zelako boskotea egonkorturik sentitzen baitzen». Hori bai, proiektua ideia izatetik errealitate bilakatzeko unea urrun ikusten zuten taldekideek. «Zuzenekoaz gain irudiak ere nahi genituen, eta ez genuen edozein modutan egin nahi, zer bait landua nahi genuen», azaltzen du Imanol Ubeda taldekideak.

Musika eta zinema batzeko ideia oinarri hartuta, Modus Operandi ekoiztetxeari eman zioten ikus-entzunezkoa egiteko ardua. «Ikuspuntu artistikoa emateko eskatu genien, eta emaitzarekin oso gustura gaude; plazerra izan da lana egin ikustea», dio Ubedak.

#### Hasierakoak, tartekoak eta berriak

Lehenengo urteetako abestiak eta azken garaikoak ere topatu ahalko dira lan honetan. Eta badira, inoiz argitaratu ez direnak ere, *Graffiti* abestia, esaterako. «Gure estudio-ko azken diskoa 2006an atera genuen *Non dira* izan zen, baina ordutik, noski, lanean jarraitu dugu gauza berriekin, eta horren adibide da *Graffiti* abestia; halaber oraindik asko dugula esateko ere erakutsi nahi dugu», azaltzen du Ubedak. Bestalde, balio erantsia ere ematen dio CD-DVDari abesti berriak.

Abesti zaharrak eta ez hain za-

# Bide Ertzean taldearen izaera erakusten duen lana kalean da



Joseerra Senperena, Imanol Ubeda, Miren Aperribai eta Karlos Aranzedi, atzo eginiko aurkezpenean. I. TERRADILLOS



Bide Ertzeanek urtarrilean Leidorren eskaini zuten zuzenekoaren une bat. KUSK

harrak egonagatik ere, gaurkotu edo moldatu egin beharra izan dituzte; «duela hamar urteko abesti bat ezin da gaur egun garai hartan bezala jo, ez baita berdin sentitzen, horregatik eguneratuta daude».

Euren hastapeneko abestiak jottea oso berezia izan zela azaltzen du Karlos Aranzedik: «Kontzertua berezia izan zen aspaldiko abestiek garai haietara eramaten zaituztelako, eta orduan bizitakoak etortzen zaizkizu burura; horregatik da berezia diskoa, eta nolabait gaur egun Bide Ertzean taldea nolakoa den irudikatzen du».

#### Prozesu luzea

Normalean zuzeneko diskoa egitean bira bat hartzen dela kontuan eta hainbat kontzerturen uneak gordetzen direla azaltzen du Joseerra Senperena taldekideak. «Grabaketa honetarako, ordea, Leidorren urtarrilean eman genuen kontzertua hartu da soilik. Beraz, kontzertuak zaindua behar zuen izan, gero hori guztiak ikusiko zelako diskoan». Horregatik entsegu asko egin beharra izan zituzten tolosarrekin, hiru hilabetez aritu ziren, hain zuzen. Lehendabizi euren abesti guztietatik 30 aukeratu zi-

tuzten, eta horiek probatu ostean, azken 16ekin jarraitu zuten lanean.

#### Ikus-entzunezkora

Kontzertuaren unea etorri azkenean. «Hau beerzia zen, batetik, gure hamar urteak ospatzen genituelako, eta bestetik, etxean, leidorren jotzen genuelako». Aldi beretan, pisu handia zuen emanaldiak, ondoren, diskorako baliatu behar zutelako kontuan hartuta. Bada, kontzertuarekin «gustura» geratu zen taldea, «dena espero bezala» atera zelako.

Modus Operandi ekoiztetxeari hartutako irudiekin ikus-entzunezkoa osatzeaz. «Guretzat erronka handia izan zen Bide Ertzean taldearen zuzenekoarekin dokumentala egitea, eta beraiek bezala, ilusio handiz hartu genuen lana, eta oso gustura aritu gara», azal-

#### » DATUAK



#### ■ Diskoa. *Leidor Sessions*

CD-DVDa. Hamar urteak ospatzeko eginiko kontzertuarekin eta hainbat elkarrizketekin osaturiko lana.

#### ■ Taldea. Bide Ertzean.

#### ■ Zigilua. Gaztelupeko hotsak.

■ **Aurkezpena.** Tolosan, urriaren 23an, Leidorren.

tzen du ekoiztetxeko Miren Aperribaik. Ideiak trukatu eta adostu zituzten, eta uneoro elkarren artean artean egon dira proiektuarekin.

Zuzenekoaz gain, DVDak elementu osagarri gehiago ere biltzen ditu. Esaterako, euskal kulturgingintzan ezagunak diren Jose Luis Otamendi, Inigo Aranbarri eta Kirmen Uribe idazleei edota Gorka Urbizu musikariari eginiko elkarrizketak Bide Ertzean taldearen inguruan ikus daitezke.

#### Lana jendaurrean

Atzo aurkeztu zuten CD-DVDa lanearen emaitza jendaurrean, eta esker hitzak ere izan zituzten, «Modus Operandikoei, Foru Aldundiari, Tolosako Udalari eta Kaki Arkazarori lan osoan bidelagun izan dugulako».

Orain lan hau areto eta zine handietan aurkeztea izango da hurrengo pausoa, eta dagoeneko badituzte zehazturik hainbat emanekizun. Leidorrera itzuliko dira lana erakustera urriaren 23an, eta saio berezia izango dela diote taldekideek, «kontzertua berriro ere gogora ekarriko baitu saioak». Horrez gain, Bilbon azaroaren 3an izango da ikusgai Kafe Antzokian, azaroaren 6an Andoaingo Basteiron eta azaroaren 7an Bergaran.

Bestalde, *Graffiti* abesti berriak erakusten duen bezala lanean jarraitzen du taldeak ekarpen berriekin, eta dagoeneko hurrengo diskorako hainbat ideia badituztela ere azaldu dute Bide Ertzean taldekideek.

Jai zoriontsuak pasa!

Zilar kalea, 4 eta San Migel plaza, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

Taberna - Jaletxea

## Zaharren Biltokia

Jai zoriontsuak igaro!

- Aste osoan eguneko menua
- Zure aurrekontura egokitzen gara
- Menu bereziak

Tel.: 943 69 26 32 • Mikel Deuna Plaza, 8 • IRURA

## Abelgorri lehiaketa, piper erreak eta sukaldaria, etzi

**Tolosa** » Larunbat goizean hainbat ekitaldi izango dira lehen sektorearekin lotuta; Ferialekuan eta Zerkausian egingo dituzte hauek.

### ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, lehendabiziko sektorea izango da protagonista beste behin ere. Alde batetik, Ferialekuan, XL. Abelgorri Lehiaketa jokatu da. Bestetik, Ferialekuan, Slow Food mugimenduaren ekimenez, Roberto Ruiz sukaldaria ariko da lanean Zerkausian. Toki berean, Antton Arroniz egongo da piperrak erretasaltzen.

### Abelgorri lehiaketa goizean goizetik

Urte askotako tradizioa duen ekitaldia da Gipuzkoako Abelgorri lehiaketa. Friso, Suitza, Pirenaika, Blonda eta Txarolesa arrazako bigak aterako dira lehiara. Aurten, Limousin arrazako ez dira izango, hauentzako beste lehiaketa bat egongo baita azaroaren 14an, Ferialekuan bertan. Larunbat honetako lehiaketan parte hartu nahi dutenek, goizeko zortzietarako

eraman beharko dituzte abereak hara.

Lehiaketa bukatu ostean hiru bigara zozketatuko dira Tolosako Udalaren, Kutxa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Hauek liburu genealogikoetan ganadua inskribatuta duten eta Ferialekuan bertan dauden ganaduzaleen artean banatuko dira.

Bestalde, lehiaketatik kanpo, Gipuzkoan jaio eta hazitako bigantxa eta idiskoak jarriko dira salgai azokan, enkante baten bitartez. Gainera, Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak 150 eta 300 euro bitarteko laguntza emango du buru bakoitzeko.

### Zerkausian Roberto Ruiz sukaldatzen

Azken bi hilabeteetako geldialdiaren ostean, larunbat honetan, hau da, etzi, Tolosako sukaldaririk ezagunenetakoa bat ariko da lanean Zerkausian. Roberto Ruiz, Fronton jatetxekoa, hain zuzen ere. Slow Food mugimenduarekin lanean dihardu berak eta honen baitan antolatutako ekimenean parte hartuko du berak ere.

Tolosako sukaldariak larunbateroko ohitura du Zerkausian

erostea. Baina oraingoan berezia izango da. Garaiko produktu bat aukeratuko du eta bertan, jendearen aurrean prestatuko du. Ondoren inguratzaren direnek dastatzeko aukera izango dute. 12:00ak inguruan egingo dute banaketa.

Bestalde, joan den astean bezala, Antton Arroniz etorriko da Zerkausiko merkatura piperrakerreta saltzera. Lodosako pikilloa, Mendabiako pikoa, Piper naiararra eta Bola edo pipermorroa erosteko aukera izango da. Bihilabete hauetan, astero eskuratu ahal izango dira.

### Obrengatik, aldaketak

Atadi kaleko obrak direla eta, Zerkausiko merkaturako saltzaileek ezin izango dute betiko ibilbidea egin. Hau da, Zumardi Txiairen ondoko, Nafarroako zubitik igaro, Zerkausiko kalean deskargatu eta Atadi kaletik atera. Honen ordez, Plaza Zaharrean egin beharko dute karga eta deskarga, edo Plaza Zaharrean buelta hartu eta Zerkausiko kalean atzeraka sartu beharko dute. Dena den, jakitera eman dutenez, udaltzaingoak han egongo dira goizean goizetik, laguntzeko.

## Tolosa Lantzeni onarpena eman diote

**Rolosa** » Osoko Bilkuran behin betiko onarpena lortu zuen lurzoruaren kudeaketarako udak merkataritza sozietateak.

### ERREDAKZIOA

Herenegun egindako Osoko Bilkuran behin betiko onarpena eman zioten lurzoruaren kudeaketarako udal merkataritza-sozietatearen eraketari. Uztailearen 7ko udal batzarraren aparteko osoko bilkuran eman zen lehen urratsa, orduan eman baitzitzaion behin behineko onarpena Tolosa Lantzen SA udal enpresaren bigarren artikulua aldaketari, eta orain izan du jarraipena.

Tolosa Lantzen izango da enpresaren izena, eta 61.000 euroko kapitala izango du. Jokin Bildarratz izango da bertako lehendakaria eta Jokin Azkue, lehendakariordea. Garikoitz Lekuona izango da berriz, idazkaria. Herenegun bilkuran, Ezker Batua-Aralarrek aldaketaren aurka zegoela adierazi zuen, eta lehen zegoena nahikoa zela adierazi.

Udal ordezkariak aho batez eman zuten behin betiko onarpena. Hauen iritziz, hirigintza-araazoen kudeaketa azkartu egingo da honela, eta eraginkorrago bihurtuko da.

### Nerea Letamendia izango da Turismo eta Ferien arduradun

Bilkuran eman zen jakitera ere, Nerea Letamendia EAKo zinegotziaren kargu berria zein izango den. Honek Gomezen lekua hartuko du eta Turismo eta Ferien batzordeko lehendakaria izango da.

Letamendiak izango duen arduraren berri ematez gain, kargu uzte bat ere eman zen jakitera, Andoni Imazena hain zuzen ere. Honek kontseilari lanetan ez jarraitzea erabaki du. Honen aurrean, onarpena adierazteaz gain, esker ona ere erakutsi nahi izan zuen udalbatzak.

Azkenik, Urkizu izan zen hizpide Bilkuran. Hemen, balioaitzeko zentrua eraikitzeko bidean, balore bera duten finken permuta egitea eta zortasun-ekarpena egitea onartu zen Otzabalaren. Baita, auzoan egindako lurzoru lagapena, Elkargune berria eraikitzeko.

## Pasaiatik Kilometroetara mendi irteera, igandean

**Ibarra** » Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek Gipuzkoan jarriko dute ikasturte honetako bigarren ikurrina.

### ERREDAKZIOA

Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek ikasturte berriko bigarren irteera egingo dute igandean, urriak 4. Oraingoan Gipuzkoako txanda da eta Pasaiatik Donostiako Kilometroetara joango dira, Geurea Ikurrina ekimenaren baitan ikurrina Euskal Herriko zazpi lurraldeetan zabaltzeko.

Igandean, 09:00etan irteera egingo da Tolosako tren geltokitik, 09:15eko tren hartuta, eta 10:00etan iritsiko dira Lezora. Handik 3-4 orduko ibilaldia egingo dute eta antolatzaileek esan dutenez, ibilbidea «oso erraza, ederra eta entrenigarria» izango da.

Era berean, Pasai Donibanetik San Pedrorra txalupan igaroko dira eta bertatik joango dira Donostiara bi orduko ibilaldia eginda eta bideetik «ezkutuan geratzen diren paisaiak ezagutzuz». Donostian Kilometroak izango dela baliatuz bertara joateko asmoa dute, ondoren, Ibarrara itzultzeko 15 minutuero tren bereziak egingo dira-eta.



40. Abelgorri lehiaketa jokatu da etzi goizean, Ferialekuan; 08:00etarako eraman behar dira abereak. NEREA URIBUI

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## Amezketan eskualde mailako logotipo lehiaketa antolatu dute

**Amezketak** » Gaurtik azaroaren 6a bitarte Amezketako Udalean aurkezteko aukera dago.

### ERREDAKZIOA

Amezketako Kultura Batzordeak, Tolosaldea eta herri mailako logotipo lehiaketa antolatu du, Kultur Astean.

**2015 arte udal dokumentuetan** Amezketak, Tolosarekiko independentzia lortu zuela laister, 400 urte beteko dira eta bestetik, Pernando Amezketarra jaio zela ere 250 urte betetzear daude. Urteurren hauek direla eta, hurrengo urteetan, Amezketan ospakizun ezberdinak izango dira.

Honi lotuta antolatu duten logotipo lehiaketa, gaurtik hasi eta azaroaren 6ra arte zabalik egongo da. Hauek dirabete beharrek baldintzak: Irudiak, Amezketako izaera eta aipatutako urteurrenak konbinatu beharko ditu. Irudiaren tamaina, TIFF formatuan, 25x25 zentimetrokoa eta 300 DPI baino handiagoa izan beharko du. Egileko, gehienez ere bi lan aurkeztu ahalko dira. Udaletxera, CD batean bidali beharko da edota [amezketa@udal.gipuzkoa.net](mailto:amezketa@udal.gipuzkoa.net) helbidera bidaliz. Irudiarekin batera, baina ez irudian bertan, izena eta abizenak, NANeko zenbakia, helbidea, NANeko zenbakia, helbidea eta harremanetan jartzeko telefono zenbakia edo e-maila.

Galdaririk izanez gero, [amezketa@udal.gipuzkoa.net](mailto:amezketa@udal.gipuzkoa.net) helbidera idatziz edota [www.amezketa.org](http://www.amezketa.org) orria bixitatuz jaso daiteke informazio gehiago.

### Kultur Astean izango dira ikusgai

Lehiaketara aurkezten diren irudi guztiak, Kultur Astean zehar ikusgai egongo dira, anonimotasuna gordez.

Irabazlea, herritarrek eta epaimahai batek erabakiko nor izango den. Eta irabazlea, Kultur Astean emango da jakitera nor izango den. Irabazleak, 300 euro jasoko ditu eta 2015r urtera arte, logotipoa udal dokumentu guztietan agertuko da, herriko ohiko irudiaren alboan.

**@ X. HITZA Argazki lehiaketa.** Finalera iritsi diren zortzi argazki finalistak bozkatzeko azken eguna da gaurkoa. Botoa ematen duten harpidedunen artean, HITZAko materiala zozketatuko da. Bestalde, zortzi argazkiak Tolosako Gorosabel kalean dagoen Karlis argazki dendaren erakuslehoan ikusgai daude. Animatu eta eman zure botoa.

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



Pasa den urteko jaietan, haurrak puzgarrietan ibili ziren. NEREA URBIZU

# Errosarioko Amaren jaiak ospatuko dituzte Ugarten

**Ugarte** » Bihar hasi eta hilaren 4an bukatuko dira jaiak. Haur, gazte eta helduentzako ekintzak prestatu dituzte.

### ERREDAKZIOA

Ostiraletik igandera ospatuko dituzte Ugarteko Errosarioko Amaren Jaiak. Urtero legez, denetarik antolatu dute Ugartera gerturatu eta festaz gozatu nahi duen ororentzat.

### Herri Afaria

Festei hasiera, iluntzeko 20:30ean, elizako kanpaiak joaz eta suziriak jaurtikiz emango diete. Jarraian, behin festak hasita, ugartear guztiak, mahaiaren bueltan elkartuko dira herri afarian. Bertan, menu ederra izango dute tripa betetzeko. Hasi, urdaiazpikoa, mondeju zopak eta mondejuarekin eta jarraian, ardi gixatua eta bukatzeko gazta eta membriloa izango dituzte. Kaferik ere ez da faltako.

Ondoren, jan edanak jaisteko, Itzel taldearen trikiti doinuak izango dituzte dantzatzeko. Atsedendian, Toka txapelketa egingo dute.

### Pilota partidak

Larunbata, gaztetxoaren arteko pilota partidekin hasiko dute. Goizeko 11:00etan hasiko dira eta lehenengo partidari, Ruiz eta Zubeldia, Galarza eta Zubeldiaren aurka ari-tuko dira. Jarraian, Amundarain eta Zabala, Artola eta Zubeldiaren aurka ariko dira eta bukatzeko Irribarren eta Beloki, Zabala eta Ota-

mendiren aurka. Goiz eta arratsalde, puzgarriak eta ohe elastikoak egongo dira umeen gozamenarako. Goizez, 12:30etatik 14:00etara eta arratsalde, 15:30etatik, 19:00etara izango dira. Gainera, arratsaldean zehar, zaldiak ibiliko dira Ugarten zehar nahi duenak ibilalditxoaren bat egin nahiko balu.

Bitarte horretan, 16:00etan hasita, X. Mus Txapelketa jokatu dute. Gainera, merienda orduan, txokolatlea bizkotxoekin banatuko dute.

Afaritarako zahagi-ardoa izango dute 21:00etan hasita. Eta ondoren, girotzeko Ansozregi eta Larrañagarekin trikiritia. Atsedendian, «Ikuskizun Bitxia» deitu duten emanaldi berezia izango da. Hori bai, azken hau Ugartera jo-

aten direnek bakarrik izango dute ikusteko aukera.

### Ingurutxoak

Festen azken egunean, Meza Nagusiaren ostean, Txakolin dastaketa izango da plazan pintxoek lagunduta. Bazkal aurretik, Laja eta Landakandaren trikiti saioa izango da. Arratsaldeko 18:00etan, alde batetik, Goenatxo eta Izeta II harri-jasotzaileak eta bestetik, Olasagasti eta Otaño aizkolariak izango dira. Hauen saioak amaitu eta gero, ingurutxoak dantzatzeko dute. 20:30ean, sagardo dastaketa izango da eta bukaeran, Akelok Guraso Elkarteak, zozketatzen duen txerriaren zenbaki saritua aterako dute. Festen amaiera, Laja eta Landakanda trikitalariekin izango da.

### » EGITARAUA

#### Bihar, urriak 2

- **20:30.** Kanpai jotze eta suziriak.
- **21:00.** Herri Afaria.
- **Ondoren.** Trikiritia Itzel taldearekin.
- **Atsedendian.** Toka lehiaketa izango da.

#### Urriak 3, larunbata

- **11:00.** Gaztetxoaren pilota partidak.
- **12:30-14:00 eta 15:30-19:00.** Umeentzat puzgarriak eta ohe elastikoak.
- **16:00.** Ugarteko X. Mus Txapelketa. Gainera, Arratsaldean zehar Zaldiak egongo dira Ugartetik, ibilalditxoak egiteko aukerarekin.
- Ondoren, txokolatlea bizkotxoekin eskainiko dute.
- **21:00.** Zahagi-ardoa.

- **22:30.** Ansozregi eta Larrañagarekin trikiti doinuak. Atsedendian, «Ikuskizun bitxia» izango da ikusgai.

#### Urriak 4, igandea

- **11:30.** Meza Nagusia. Jarraian, Txakolin probaketa eta pintxoak plazan. Bazkal aurretik, Laja eta Landakandaren trikiti saioa.
- **18:00.** Herri kirolak: Goenatxo eta Izeta II harri-jasotzaileak eta Olasagasti eta Otaño aizkolariak. Ondoren, Ingurutxoak.
- **20:30.** Sagardo dastaketa. Amaieran, Akelok Guraso Elkartearen eskutik zozketatzen den txerriaren zenbaki aterako da bertan.
- **Jarraian.** Laja eta Landakandarekin amaiera.

## Gaur Zine-Forumean 'Still Walking' jatorrizko bertsoian

**Tolosa** » Kore-eda Hirokazu tokioarrak eginiko familia giroko filma da. 19:15ean eta 21:45ean izango da ikusgai.

### ERREDAKZIOA

Tolosako Zine-Forumak antolatu, Leidor antzokian *Still Walking* filma jatorrizko bertsoian ikusteko aukera izango da. Ostegunero bezala, bi saio izango dira. Lehen 19:15ean hasiko da eta bigarrena, 21:45ean.

### Familia kontuak

Kore-eda Hirokazu tokioarrak eginiko filma da. Familia giroko historia da eta egun bakar batean kontatzen da. Seme-alabak, euren haurrekin, guraso helduen etxean elkartzen dira aspaldiko partez. Duela 15 urte itota hil zen seme zaharra oroitzeko elkartzen dira. Tristura eta umorea lantzen ditu eta familia zeinen garrantzitsua eta era berean astuna izan daitekeen erakusten du.

## T Telefonoak Larrialdia. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 681134

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarvalde.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leizta.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Orexa:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leiztaran autob.:** 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leizta):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Epaia espedientea atzera eramatea eskatzen du zerrategiaren kasuan

**Altzo** » Altzo Azpin eraiki zen zerrategia dela eta herritar batek errekursoak jarri ostean azterketa berri bat egin beharko da.

## ERREDAKZIOA

Ia duela zazpi urtetik datorren kontua da Altzo Azpi auzoan egin zen zerrategiaren inguruko zurrunbiloa. Urbizu enbaketak SL enpresak zerrategia bertan jarri zuen baina herritar batek, urte hauetan guztietan borrokan jarraitzen du «leku desegoki» batean eta «modu ilegal» batean egin zela aldarrikatuz.

Donostiako Administrazioarekiko Auzitegiko 1 zenbakiko epaitegiak, duela bi aste eman zuen bere epaia.

## Altzoko Udala

Altzoko Iñaki Murua alkateak ondorengo dio afera honen inguruan: «Egia da, banakako ebaluazio ingurugiro txostena ez zela egin. Hori promotoreak egin behar zuen eta ondoren, udalak tramitatu beharko zuen. Informe hori era berean, loteslea da» Lehendabizi txosten hori egin beharko litzateke. Jarraian, txostenak zer esaten duen aztertu eta lizentzia emango litzateke». Txosten hori jarduera horrek leku jakin horretan egin dituzkeen kalteak neurtzeko egiten den azterketa da.

Udalak atzo egin zuen bileran jorratu zuen gaia: «Gure asmoa, hori tramitatu dezan eskatzea da. Nahiz eta oraindik ez gauden behartuta, hilaren 7an bukatzen baita errekursoak jartzeko epea».

Udalak ez errekurritzea erabaki du, «baina norbaite errekurrituko balu, errekurtsioa atera arte epaia ez da firmea». Epaia espedientea atzera eramatea eskatzen du eta azterketa egin ostean, eskatzen diren neurriak bete beharko litzuzke. «Gaia asteleheneko plenera eramango dut eta gure planteamendua promotoreari azterketa egin dezala eskatzea izango da epe bat jarritz. Behin udal txean aurkezten duenean tramitatu



Urbizu enbaketak S.L. enpresak martxan jarritako zerrategia Altzo Azpi auzoan dago. N. URBIZU

dugu». Ondoren, jartzen dituzten neurriak betearazi beharko dituzte. Aurreko legealdiko kasu baten aurrean gaude eta «udaletik eskatu izan balitzaio, suposatzen da egina izango zuela. Nik dakidana da espedientean ez daudela».

## Urte askoko borroka

Altzoko herritarrak proiektua hasi zenetik borrokan dihardu zerrategiaren inguruan. «Gaur egun, Ur-

## Udalaren asmoa falta den espedientea promotoreari eginaraztea da

bizu enbaketak SL zerrategia eraikia egoteaz gain, martxan dago. Irekiera ofizialaren egunean, Ibarretxe lehendakaria bera ere bertan izan zen».

Hasiera batean, Altzoko Udalak, «obra lizentzia behar baino lehenago eman zion zerrategiari» dio herritarrak. «Udalak, zerrategia egiteko aukera bazuen baina ez erabakitako lekuan» azpimarratzen du. «Arauki errespetatu gabe

aurrera eraman dute proiektua». Autonomia Erkidegoan, «landareria kontserbatu beharrekoa da» eta batez ere, «basoak». «Herritar eta administrazioen betebeharra da, honelako harizti autoktonoak zaindu eta mantentzea eta kasu honen aurrean geundek».

Udala, hirigintzako arauen aldaketa egiten hasi zen «baina, beharrezkoa eta derrigorrezkoa den ingurumenaren gaineko eraginaren banakako azterketarik ez zuen egin».

Behin betiko proiektuaren azterketa egitea beharrezkoa izaten da, «ingurugiroan izango duen eragina jakiteko eta beharrezkoa balitz leku aldaketa gauzatzeko». Zerrategiaren proiektuari, ingurugiroko azterketa egin izanez gero epaia dio «baso atlantiarrean eragingo lukeen kaltearen aurrean, neurri zuzentzaileak hartzea beharrezkoa izango zela».

Beraz, «hariztiari eta paisaiari eginiko kalteak ekidin beharrekoak izango ziren. Beste kokaleku egokiago bat bilatu beharrean aurkituko ziren bai Udala eta baita Urbizu enbaketak enpresa ere».

Honez gain, egurraren tratamendua duen jarduera, lur kutsagarrien artean dago sailkatua. Euskal Autonomia Erkidegoko antolaketa batzordearen arabera, Altzoko arau berriztaileen aldekatan, baso industriaren jarduera lurrraren sailkapen berezian zehaztu beharko litzateke. Baina ez zuen lurrraren sailkapenari dagokion espeditierik bete. Eta ur hornidura eta saneamendu sarearen inguru-

## Herritar eta administrazioen beharra da landareria, eta batez ere basoak zaintzea

korik ere ez, honela «Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren oharrak ahaztuz».

Azkenik, Urbizu Enbaketak SLtik adierazi dutenez, «guk, Udaletik, Diputaziotik eta Eusko Jaurlaritzatik eskatutako guztia egin dugu eta baimenak eman zaizkigu enpresa aurrera eramateko. Ez zaigu besterik eskatu eta errekurritzeko asmoa dugu atera den epaia».

## Laburrak

### Herriko Eskolako Ginmasioan yoga ikastaroa

**AMEZKETA** • Yoga ikastaroa, urriaren 6an, astearte hasiko da Amezketako eskolako gimnastika egiteko gelan. Asteartero arratsaldeko 18:00etatik 19:30era elkartuko dira yoga ikastarora animatu direnak. Interesaturik balego edo informazio gehiago nahi izanez gero 943 65 31 27 telefono zenbakira deituz eskuratu ahalko da.

### Euskal Jaiko bazkarirako txartelak salgai

**ANOETA** • Euskal Jaia urriaren 11n izango da, igandea. Bazkarirako txartelak salgai daude jada Itzuli, Arkupe, Haizea, Laia eta Buztina tabernetan. Txartelen prezioa 20 eurokoa da, 15 euro langabetu eta ikasleentzat, eta 10 euro 8 urte behariko umeentzat. Txartelak hartzeko azken eguna urriaren 4a izango da, igande honetan. Txartelak soberan geldituz gero, salgai egongo dira urriaren 11n bertan azokan, baina 7 euro garestiago izango dira. Bestalde, egun horretako antolaketa arduren paperak jarrita daude jada Itzuli tabernan, jendeak izena ematen joateko.

### Orixeko Institutuan DBHko ikasleen guraso bilerak

**TOLOSA** • Orixeko institutuak, gurasoei bilerak egin nahi ditu 2009-2010 ikasturtearen berri emateko. Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Batxilergo 1eko ikasleen gurasoei elkartuko dira eta 19:00etan Batxilergo 2ko gurasoei.

### Azken egunak 'Biblioteka en guerra' ikusteko

**TOLOSA** • Etzi ainituko da Aranburu jauregian *Biblioteka en guerra* erakusketatik ikusteko aukera. Orduategia 17:30etik 20:30era da.

### Autodefentsa ikastaroa antolatu dute aurten ere

**VILLABONA** • Aurten ere autodefentsako ikastaroa izango da Villabonako Olaederra kiroldegian. Interesaturik gaur 19:15ean agertu beharko dute kiroldegira. Ikastaroa astean bi egunetan izango da antolatzaileek jakinarazi dutenez.

argazki lehiaketa








h

Boto emaleen artean HITZako materiala zozketatuko da!

EMAN BOTOA!

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikoan edo 943 65 56 95 telefono zenbakian

**HITZA** udako argazki lehiaketa

gaur da botoa emateko azken eguna!

## Euskal presoen argazkien aurka tiroka

**Lizartza** » Herriko preso baten eta preso ohi baten argazkiei tiroak botatzen ageri dira Interneteko bideo batean bi pertsona.

### ERREDAKZIOA

Interneten euskal presoen argazkiak nola tirokatzen dituzten erakusten duen bideoa dabil eta, duela urtebetekoa den arren, «gaurko giro errepresiboaren neurria ondo erakusten duen azken adibidea da», Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) salatu duenez. Presoetako bat Lizartzarra da eta

bestea berriz orain gutxi geratu da libre. Preso ohi hau bizkaitarra den arren Lizartzarekin lotura estua du.

«Tiroka agertzen diren pertsonak espainiar polizia direla uste dugu. Euskal preso politikoen argazkiak kaletik kendu eta euren tiro praktiketan erabili dituzte, bideoan ondo ageri den bezala», gaineratu zuen AAMk. «Gorrotaren eta mendekuzko jarreraren erakusle» da bideoa AAMren ustez.

Era berean, gogoratu behar da Falange y Tradición taldeak irailearen 23an hartu zuela bere gain iazko urritik Euskal Herrian izandako hainbat pintaketa eta mehatxu.

## 500.000 euro «ikur guztiak kentzeko»

### ERREDAKZIOA

«Terrorismoa ez goratzea» nahi dute Eudelek eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, eta horretarabideratutako akordioa sinatu zuten atzo Bilbon. Hain zuzen, Jokin Bildarratz (EAJ) Eudeleko presidentek eta Tolosako alkateak eta Rodolfo Ares (PSE-EE) Herrizaingo sailburuak izenpetu zuten. Eusko Jaurlaritzak euskal presoen eskubideen aldeko «ikur guztiak kentzeko» 500.000 euroko laguntza emango die Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriei, horrela «terrorismoa ez goratze-

ko» helburua «azkarrago» lortu ahal izateko.

Uda osoan Ertzaintza festaz festaz euskal presoen argazkiak kentzen ibili ostean, gai horren inguruko akordioa nahi zuen Aresen sailak Eudelekin, eta horretaz hitz egin zuten abuztuaren 27ko bilean. Akordiora iritsi zirela esan zuten bi aldeek, baina ez zuten akordio hori publiko egin. «Terrorismoa goratzen» duten kartel eta pintaketak kentzearekin ados zegoela esan zuen udan EAJk, baina Herrizaingo Sailak lan horretan erabili dituen formak salatu zituen.

## Guardia Zibilaren presentzia salatu dute

### ERREDAKZIOA

Ikaztegiatoko zenbait herritarrek azken egunetan herriaren inguruan Guardia Zibilak jarritako kontrolak salatu dituzte. Hauek esandakoaren arabera, kontrolak

autobiako Tolosarako sarreran jarri dituzte eta galdeketa egiteko ondoko basora eramaten dituzte «segurtasun» arrazoiak direla eta. Guardia Zibilen jarrera «irain-garria» dela argitu dute.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



TAKeko bi taldek hartuko dute parte Tarragonako txapelketan; irudian seniorren entrenamendua ikus daiteke. HITZA

## Tolosaldeko arraunlariak Tarragonan lehiatuko dira asteburu honetan

**Tolosa** » Orioko gazte talde batek osatutako taldeak eta Tolosako senior eta beterano mailakoak ariko dira.

### REBEKA CALVO

TAKeko senior eta beteranoen mailako arraunlariak Tarragonako San Carles de la Rapita herrian asteburu honetan izango den Llaütsonzien Espainiako Txapelketan hartuko dute parte. Talde bakoitzeko zortzi arraunlarik eta lemazainak hartuko dute parte txapelketan.

Tolosaldekoak, hala ere, ez dira euskal ordezkari bakarrak izango, Orioko gazteek ere beste talde bat osatu baitute Tarragonara joateko.

### Kataluniarren gonbita

Tolosaldeko arraunlarietako batek, Unai Elizasuk, esandakoaren arabera, Colera arraunlari taldeak eskaini zien parte hartzeko aukera: «Nik badut harremana Kataluniako arraunlarietako eskaintza egin ziguten. Ontzia osatzeko arraunlari nahikorik ez zeukatela deitu ziguten eta baita haien babesleek ontzia uretan ikusi nahi zutelako ere».

Orain delabaste jaso zuten tolosarrek kataluniarrek utzitako llaüt ontzia eta ordutik egunero ari dira entrenatzen Pasaian. Llaüt ontziak ez dira hemen erabiltzen diren traineruak bezalakoak. «Traineru baten zabalera du, baina trainerilla baten luzera, oso oso motela da, ez dago txapelketetarako sortua, arraunkera tradizionalen pentsatutako ontzia da», argitu du Elizasuk. Azken bi asteetan, hortaz, ontzi berriari tankera hartzen aritu dira tolosarrak. «Neurri alde-



Maila bakoitzeko zortzi arraunlari eta lemazain bat ariko dira. HITZA

tik ahal den erosoan jartzen eta ontziak ahal den azkarren joateko zer egin behar dugun ikusten aritu gara. Egia esan haiek urte osoan dabilta ontzi honekin eta gu azken bi asteetan bakarrik, beraz ez dakigu zer pasako den», argitu du.

Entrenatzeko ere beste lasaitasun bat omen dute kataluniarrek: «Asteetan bitan entrenatzearekin nahikoa dute eta gu egunero ari gara. Gure filosofiatik oso urrutit daude. Arrauna ulertzeko beste modu bat dute, nahiz eta badakiten guk hemen nola bizi dugun arrauna eta kopiatzen hasi diren», esan du.

«Han arraunean orain gutxi hasi

ziren eta orain gutxi hasi dira, hortaz, arraunean azkar egiteko nola egin behar den ikasten. Orain arte oso modu tradizionalan ibiltzen ziren, entrenatzeko eta arrauna ulertzeko oso modu ezberdina dute. Orain hiru urte lehenengo aldiriz joan ginenean, Hondarribiarekin batera, hain zuzen, haien kontrako estropadan aritu ginen eta bigarrenengo ia 40 segundo atera genien, nik uste orduan konturatu zirela zerbait gaizki egiten ari zirela», gogoratu du.

### Lan txukuna egiteko aukera

«Auskalo zer egingo dugun, baina egin ditugun probetan ondo aritu gara eta nik uste aurre samar ibiltzeko aukera badugula. Hala ere, ezin dugu ahaztu ez garelako sekula ontzi honekin ibili, orain bi aste bakarrik dugula, barku berria dela, gutzit desberdina dela...», dio Elizasuk.

Llaütsonzien Espainiako Txapelketa larunbatean eta igandean izango da; larunbat goizean izango dira lehen sailkapenak, nahiz eta sailkatzen ez diren taldeek bigarren aukera bat izango duten arratsaldean. Finalerdia igande goizaldean izango dira eta finala, aldiriz, eguerdian.

### » ARRAUNLARIAK

■ **Senior maila:** Unai Elizasu, Gari Etxeberria, Ekain Yarza, Jon Al-duntzi, Endika Lopez, Marko Ali-jostes, Iñigo Irazu, Joseba Alustiza eta Beñat Larrauri. Lemazaina: Julen Gorostiaga.

■ **Beteranoen maila:** Josu Atxega, Txelis Lopez, Koteli Perez, Alberto Diaz, Eriz Lasa, Ibon Karrera, Iñigo Zabala, Miguel Fresneda, Julian Gorostiaga eta Iñaki Kruz. Lemazaina: Vicente Navas.



Aurrera Kirol Elkartearen Eguna ospatuko dute etzi. Iaz bezala zaldiz ibiltzeko aukera edukiko dute haurrek. N.U.

## Aurrera Eguna ospatuko dute etzi elkarteko kideek

**Leitza** » Herritar guztiak gonbidatu dituzte egun guztiko jaira; Aurrerako ikurra duen blusa beltza eramatea eskertuko dute.

### ASIER IMAZ

Aurrera Kirol Elkarteak egun handia ospatuko du urriaren 3an, etzi. Familia oparo honetako seme-alaba guztiak bat egingo dute Aurrera KE Egunaren festan.

Ospakizunak 09:00etan hasiko dira Leitza, txistularien dianarekin. Hortik aurrera hamaika ekitaldi etorriko dira eta herritarrak izango dira protagonista nagusiak. Ikasturtearen hasieran beraz aurrekoa borobilduko dute.

### Kirola, bazkaria eta jaia

Aurrerako hainbat taldek bere ekarpena egingo du etzi. Hauen artean, pilotariak, dantzariak eta zaldi taldekoak aipatu behar dira.

Bazkideek ere euren unea edukiko dute Aurrera Egunean. Lehenik bazkaria egingo dute Karrapen

eta ondoren Ingurutxoak dantzatuko dute.

Jaiaren amaiera noiz izango den esatea zaila da. Hori bai, bertan parte hartu nahi duenari gomendio bat luzatu diete Aurrerakoek: «Blusa beltza Aurrerako ikurrarekin jartzeara animatzen zaituztegu».

### » EGITARAUA

#### Urriak 3, larunbata

- **09:00etan.** Txistulariekin diana.
- **10:00etatik 14:00etara.** Haurrentzako Rokodromoa, tirolina eta zaldi ibilaldia plaza inguruan.
- **11:00etan.** Aurrera Pilota Eskolako pilotarien saioa plazan.
- **12:00etan.** Aurrerako Dantzarien dantza saioa plazan.
- **13:00etan.** Incansables txaran-

garekin herrian barna poteoa egingo dute.

■ **14:30ean.** Aurrerako bazkideen bazkaria Karrapen.

■ **Ondoren.** Bazkideen ingurutxo eta Incansables txarangarekin poteoa.

■ **21:30ean.** Luntxa Aurreran eta festarekin jarraitzeko Agerralde gizon orkestra Aurrerako atarian.



Gaspe Independentistek Gaspe Eguna antolatu dute Leitza hilaren 17an. HITZA

## Nazio mailako Gaspe Eguna ospatuko dute hilaren 17an Leitza

**Politika** » Gaspe Independentistek Jarrairen sorreraren 30. urteurrena ospatuko dute jai giroan urriaren 17an, larunbatean.

### A. IMAZ

Gaspe Independentistek 30 urte antolatzen eta borrokatzen; 30 urte ta independentzia lortu arte! lelopean Euskal Herri mailako Gaspe Eguna antolatu dute Leitza, Urriaren 17an.

Aurkezpen ekitaldian azaldu zuten, «urte luzeetan borroka bidez lortutakoa ospatu, baina bereziki, aurrerantzean ditugun erronka berriei gogoz ekin ahal izateko, urte hauetan guztietan gaspe erakunde lan egin, esku kolpe bat bota zein inguruan» ibili diren guztiak gonbidaturik aurkitzen dira Gaspe Egunerako.

Ekitaldi honekin Jarrairen sorreraren 30. urteurrena ospatzeko asmoa dute, «ez baita makala azken hamarkadetan eginiko bidea: emandako urratsak eta izandako lorpenak». Helburu horrekin egun osorako egitaraua aurkeztu zuten. Parte hartzeko bideak «ohiko lekuetan» egongo dira.

### » EGITARAUA

#### Urriak 17, larunbata

- **12:00etan.** Harrera eta zintzur bustitzea, animaturik.
- **14:00etan.** Bazkaria.
- **Arratsaldean.** Karaoketa: *Kantantzen duen herri bat ez da inoiz hilko* lelopean.
- **20:00etan.** Kontzertuak: Egurra ta Kitto; Skatu eta Itziarren Sermeak.
- **Egurditik iluntzera.** Haurrentzako txokoa.



## 19.000 eurotik gora uso postuetan

**ARESO** » Uso postuen aurtengo enkantea burutu berri da. Lehen egunean, hilaren 19an, 45 lagun inguru bildu ziren eta azken egunean, hilaren 26an, 50 inguru. Zenbakiak egin ondoren, jazko diru kopuruaren an-

tzekoa bildu dute enkantean: 2008an 20.000 euro eskas bildu ziren eta aurtun 19.000 pasatxo. Posturik merkeena 97 eurokoa da eta garestiena 3.168 eurokoa. Guztira 27 postu banatu zituzten. HITZA

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Kafetegi-Txokolategia.** Tolosan, erdigunean, martxan dagoen kafetegi-txokolategia alokatzen da. Arrazoia: jubilazioa. Telefona: 669 82 70 96.

### SALGAI

■ **Etxebizitzak.** Tolosako Gorosabel kalean bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata bi logelakoa, 180.000 eurotan. Bestea, berriz, 156.000 eurotan. Harremanetarako deitu 669 82 70 96.

■ **Garajea.** Alegian, San Joan kalean garajeko marra salgai. Prezioa: 18.000 euro. Harremanetarako deitu 669 82 70 96 telefono zenbakira.

### GALDUTAKOAK

■ **Jertse beltza eta eguzkitako betaurrekoak.** Joan zen igandean,

irailak 27, jertse beltz bat eta eguzkitako betaurrekoak galdu ziren Urkizutik Erriorako bidean, Intxur bi baserriaren inguruan. Aurkitu dituenak dei dezala 695 749 825 telefono zenbakira. Aldez aurretik, mila esker.

### LANA

■ **Garbitzailea.** Ibarra Sendi Ekintza Elkarteko bazkideei zuzenduriko oharra: Elkarteko sagardotegirako garbitzailea behar da. Lanpostua eskuratzeko bete beharreko baldintzak ondorengoak dira, elkarteko kide edo kideren baten bikotea izatea da. Lanpostu honetan interesaturik dagoenak, urriaren 11aren aurretik, juntakideren batekin harremanetan jarri edo elkartearen buzoian bere izena eman behar du.



21°  
13°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	19°
HOTZENA	9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@irragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Miriam Mendoza ipuin kontalaria ariko da Errota Haur Liburutegian 18:00etan, 3-6 urte arteko haurrentzat.

■ **Tolosa.** Bisita gidatuak antolatu dituzte Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko aste-buruetan. 12:00etatik 18:00etara bitarte izango dira bisitak. Izen-ematea ireki dute eta hainbat bide ireki dituzte horretarako: Tolosako Ekinbide Etxean (943 650414 telefonoan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara) edo [topic@cititolosa.com](http://topic@cititolosa.com) helbidean egin daiteke.

■ **Villabona.** Jubilatuen XXV. Astea: marmitako lehiaketa eta ondoren dastaketa Biltoki elkartearen.

### Hitzaldia

■ **Ikaztegieta.** Bizi-testamenduari buruzko araudiaren alderdiak eza-gutaraziko dituzte liburutegian 17:00etan.

### Elkarretaratzekak

■ **Tolosa.** Pello Odriozola preso tolosarraren aldeko elkarretaratzeta 19:30ean Plaza Zaharrean.

### Zinema

■ **Tolosa.** Zine-forumean, *Still Walking* jatorrizko bertsoian, 19:15ean eta 21:45ean.

### Erakusketak

■ **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan. Urriaren bukaerara arte izango da ikusgai.

■ **Ibarra.** Gerrako umei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitutako bizipenak jaso dira. Idi Ezkerra fundazioaren eskutik. Hilabete bukaerara arte dago ikusgai.

■ **Tolosa.** Iñigo Altolagirrenen pintura erakusketa Aranburu Jauregian.

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian


### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Finalistak Karlis-en erakusleihoan



Erakusleihoan jarri ditu ikusgai zortzi argazkiak Karlisek: Tolosako Triangulon du denda argazkilariak. HITZA

### HITZA Argazki

**Lehiaketa** » Tolosako argazki dendan daude ikusgai; bertatik pasa eta bozkatu zure gustukoena.

### ERREDAKZIOA

Igandean jakinaraziko da HITZA-ren hamargarren edizioako argazki lehiaketako argazki irabazlea zein den. Harpidedunek dute azken hitza; haatik, izango da bozka eman nahi duenik, baina finalean zein argazki dauden ez dakienik. Bada, hauek ikusteko aukera dago Tolosako Karlis dendaren erakusleihoan.

Izan ere, Triangulon kokaturik dagoen argazki dendak zortzi argazkiak erakusten ditu egunotan. Aukera ezin hobea da, argazkien tamaina handiagoa delako eta kalitate onean inprimaturik daudelako. Gaur da azken eguna zuen bozka emateko. HITZAren materiala zozketatuko da bozka ematen duzuenon artean. Hori bai, harpidedun izan beharko duzue.

Hain zuzen Karlis berak eskaintzen du Argazki lehiaketako bigarren saria, argazki erreportaje der

bat. Irabazleak, Getariako Saiaz hotolean bi lagunentzako asteburuko egonaldia lortuko du; ta tirugarrenak Gabiriko Korta jatetxean bi lagunentzako mariskada.

### Lehiaketaren nondik norakoak

Hilaren 24a izan zen parte hartze-ko azken eguna, eta ordura arte, 90 argazki jaso genituen. Azken urte-etako Argazki Lehiaketetan baino emaitza hobea izan dugu, beraz, eskertzekoa da irakurleen eskutik ekimen honek jaso duen erantzuna.

## A Agurrak

**agurrak** urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**Zinema etxean 4**  
urriaren 10etik aurrera larunbatetan DVD bat

6 DVD euskaraz

1. Oleritzero eta Subiraren lapurketa  
2. Urtemuña festa  
3. Prop & Berta

berria

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 €  
ESKARIA: EGITEKO 943 30 43 45  
harpidea@berria.info  
edo www.berria.info

Bardodes: **LEONARDO PARRALAN**  
GEBILANO WISCO

Aukera ezazu. BIZI euskaraz **berria**